

57. atala: Taldean

Durangoko Azoka

57.1.- Jarri taldeka eta audioa entzun ondoren, erantzun galderei:

- Zergatik haserretu da Eskisabel kapitaina bi astronautekin?
- Eskisabelek bi gauza ditu esateko. Zein dira?
- Zer eskatu dute Durangoko Azokaren antolatzaileek?
- Nolakoa da bidali duten mezua? zer uste du Kevinek?

57.2.- Kevinek galdu ezin diren zita asko ditugula dio: Durangoko Azoka, Kilometroak, Ibilaldia... Bere gusturako, euskararen aldeko ospakizun gehiegi egiten dira. Ba al dakizue hauek zein lurraldetan egiten diren? Jarri binaka eta erantzun.



- Durangoko Azoka _____
- Korrika _____
- Kilometroak _____
- Euskararen Eguna _____
- Herri Urrats _____
- Ibilaldia _____
- Xilaba _____
- Oinez _____

57.3.- 54. atalean, *Tasio* pelikula aitzakia hartuta, zuzendari eta pelikula bati buruzko datuak ekartzea eskatu zitzaizuen. Binaka, aukeratu bi proposamenen artean bat eta idatzi bion artean filmaren fitxa::

Egilea	Pelikularen izenburua
Zuzendaria: - Nongoa: - Pelikula: - Urtea:	Sinopsia:



Transkripzioa (03:24)

- E- Tasio,Johnson, hor al zaudete?
- K- Tasio! Bigotitos deika.
- T- Ez iezaioik bigotitos deitu... Egun on, Eskisabel kapitaina.
- E- Mila esker, Tasio. Eskerrak zu hor zaitudan.
- K- Ja, ja, baina badaezpada hona etorri aurretik ez zinen berarekin...
- E- Johnson! Ixilik! Agindu bat da!
- E- Ea, makako pare, bi gauza.
- T- Esan, kapitaina.
- E- Bat: Ez dut "Bigotitos" berriro entzun nahi... Ez al zarete konturatzen Iurretako teknikari guztiak entzuten dituztela gure komunikazioak.
- K- Ba horrek irtenbide erraza du.
- E- Ah bai?
- K- Laser-depilazioa... Pare bat sesiorekin agur bigotetxoari betirako...
- E- Johnsooon!!!
- K- Hala ere, jakin ezazu niri gustatzen zaidala zure melokotoi-pelusita hori.
- E- Eta bi: Ez daukagu alferrik galtzeko denborarik eta...
- K- Ba ez dirudi, ze ia-ia gaurko atal-erdira iritsi gara, eta ez dugu oraindik fundamentuzko ezer egin.
- E- Bizirik itzultzea lortzen baduzu, nire eskuekin astiro-astiro akabatuko zaitut...
- T- Ez zaitetz pasa, Eskisabel kapitaina...
- E- Zer nahi duzu zuk, Tasio???!!!
- T- Konexio hau Iurreta guztiak entzuten duela... Zu zeuk esan duzu.
- E- Berdin dio. Hemen ere zuen moduko makakoz inguratuta nago...zuen erruagatik gainera..
- T- Guk? Zer egin dugu guk?
- E- Bizkarra ematen diedanean atzamarra ezpain gainean nola jartzen duten ez naizela konturatzen uste dute!!!!
- K- Esango al diguzu behingoz bigarrena? Trama honek ez du bi atal egiteko ematen eta...
- E- Gaur hasten da Durangoko Azoka...
- T- Egia da...
- E- Eta antolakuntzatik zerbait berezia eskatu digute.
- K- Esan diezu ezingo garela garaiz iritsi? jajaja
- E- Ez esan tontakeriarik, Johnson... Etzazu hitzik esan konexio honek irauten duen bitartean... eta hau agindu bat da!
- T- Zer egin behar dugu kapitaina?
- E- Musika bat aukeratu eta mezu labur bat grabatu, Trebiñu II-tik Durangoko Azokara ongietorria emanaz. Hori egiteko gai izango zarete, ezta?
- K- Zer da Durangoko Azoka.? Zure animalia eta ganadu-feria horietako bat?
- T- Euskal kulturaren azoka duk. Garai batean liburu eta disko-azoka zuan... Ni urtero joaten nauk...
- K- Harritzekoa...
- T- Aurten zoritxarrez ezin... baina urteko zita horietako bat duk.
- K-Beti dituzue zita galdu ezinak... asteburuero, kilometroak, ibilaldiak, Durangoak... Benetan, nekeza behar du izan euskaldun zintzoa izateak...
- T- Zerbait lortzeko, edo zerbaitetan laguntzeko, edo aldarrikatzeko izaten dituk... eta, gainera, komunitatea sortzen ditek.
- K- Miamin ere badira halakoak, baina zuzenean kreditu-txartela atera eta kitto... Egun-pasa erromeria aurretzen dugu. Benga. Goazen mezu hori di-da grabatzera oraindik gosaldue gabe nago eta.
- T- Trebiñu II espazio-estazioetik besarkada bat Durangora hurbildu zaretenoi.
- K-Andale, Durango!!
- T- Ez zekiat musikarekin asmatu dugun.
- K- Baietz ba!! Bete betean !! Ez al duzu zuk larunbat gauean, ETB1 ikusten?

57. atala: Taldean

Erantzunak

57.1.-

1. “Bigotitos” deitza ez zaiolako batere gustatzen
2. “Bigotitos” ez duela berriro entzun nahi, eta, Durangoko Azoka hasiko denez egun horretan, antolakuntzakoek zerbait berezia egitea eskatu dutela.
3. Espaziotik musika bat aukeratu eta mezu labur bat grabatzea.
4. Mezu sinple bat bidali dute, musika mexikarrarekin grabatutakoa. Kevinen iritziz, musikarekin bete-betean asmatu dute.

57.2.-

Durangoko Azoka : Bizkaian

Korrika: Euskal Herri osoan zehar

Kilometroak: Gipuzkoan

Euskararen Eguna: Nafarroan

Herri Urrats: Lapurdin

Ibilaldia: Bizkaian

Xilaba: Lapurdin

Oinez: Nafarroan